
DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!


Informatu, pentsatu, erabaki!
¡Infórmate, piensa, decide!
DEBAKO UDALA

DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

# 2015eko otsailaren 18an, MAHAI INGURUA

# MEMORIA



DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

# PROZESUAren HELBURUA

DEBAko herritarrekin hondakinen eta bilketaren inguruan

***INFORMATU,***
***EZTABAIDATU,***
***PROPOSATU ETA***
***ERABAKI***

DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

DEBAKO UDALA

# LAN SAIOAK

| OTSAILA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
| 2 | **3**<br>**HONDAKINEN EGOERAREN AZTERKETA** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | **18**<br>**MAHAI-INGURUA** | 19 | 20 | 16 | 17 |
| 23 | **24**<br>**SISTEMA EZBERDINEN AZTERKETA** | 25 | 26 | 27 | 28 | |

| MARTXOA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| **16**<br>**INFORMAZIO SAIOA** | **17**<br>**INFORMAZIO SAIOA** | **18**<br>**INFORMAZIO SAIOA** | 19 | 20 | 16 | 17 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | **29**<br>**HERRI GALDEKETA** |




# GAURKO SAIOA

- SAIOAREN AURKEZPENA
- SISTEMA EZBERDINEN AZALPENA
  - **TXIPDUN EDUKIONTZI SISTEMA, Tolosa**
  - **ATEZ ATE, Oñati**
  - **SISTEMA MIXTOA, Bergara**
- GALDERA-ERANTZUNAK




Debako Udala

# SISTEMA EZBERDINEN AURKEZPENA EGITEKO:

- **TXIPDUN EDUKIONTZI SISTEMA, Tolosa.**

  Lore Agirre Tolosako Udaleko zinegotzia eta Amaia Azkue Tolosaldeako Mankomunitateko zuzendaria

- **ATEZ ATE, Oñati.**

  Nerea xxx,

  Oñatiko Udaleko zinegotzia



- **SISTEMA MIXTOA, Bergara.**

  Leire xxx, Debagoiena Mankomunitateko ordezkaria eta Oñatiko zinegotzia.

# DENON ARTEAN %60ra!
## HOBETZERA GOAZ!



Zurekin,
alde ederra!

# TOLOSAra
# EGOKITUTAKO EDUKIONTZI BIDEZKO HONDAKIN BILKETA BERRITZAILEA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

TOLOSAKO UDALA

# HELBURUA

Zurekin, alde ederra!

Orduraarteko sistemarekin, %30 soilik bideratzen zen birziklatzera

## HELBURUA:

## %60-ko birziklapena

*Europako Zuzentarauak 2016rako ezarrita duen moduan*

# SISTEMAREN EZAUGARRIAK

Zurekin,
alde ederra!

- Ontzi arinak, papera eta beira – ohiko edukiontzi handi irekietan

- Materia organiko eta errefusa – 240 litroko edukiontzi itxietan
  - Organikoa – astean 3 aldiz
  - Errefusa – astean behin
  - Pixohialak - irekita




74 gune materia organikoa eta errefusarentzat

145 edukiontzi materia bakoitzarentzat

50 gunetan papera eta kartoia, ontzi arinak eta beirarentzat

65 edukiontzi pixohialentzat



# EZARKETA

Zurekin, alde ederra!

- Proposamen teknikoaren aurkezpena (apirila)
- Auzokako bilerak, edukiontzien behin behineko kokapenak zehaztuz
- Kokapenen gaineko alegazio epea (ekaina)
- Behin betiko kokapenak zehaztu (iraila)
- Sistemaren inplantazioa (urriak 27 – azaroak 6)

# EZARKETA

Zurekin,
alde ederra!






# EKONOMIKOKI

Zurekin, alde ederra!

| 2014 | | 2015 |
|---|---|---|
| 1.155.000€ | GASTU FINKOA | 1.230.000€ |
| | | |
| 570.000€ | GASTU ALDAKORRA | 170.000€ |
| | | |
| 1.725.000€ | GUZTIRA | 1.400.000€ |
| | | |
| 1.175.000€ | HERRITARREN EKARPENA | 1.200.000€ |

AURREZPENA: 325.000€

HASIERAKO INBERTSIOA : 215.000€

# DATUAK

Zurekin, alde ederra!

## TOLOSA (sistema hasi aurretik eta ondoren)



# TOLOSAKO HONDAKINAK

Zurekin, alde ederra!

## NON JASOTZEN DUTE TRATAMENTUA?

Materia organikoa: Funesen
Errefusa: Lapatxen
Ontzi arinak: Legazpin
Papera eta kartoia: Martuteneko Despanorsan
Beira: Bizkaian (Ecovidrio)

# LANDA EREMUAN

Zurekin, alde ederra!

Tolosako landa eremuak 7 auzo ditu

- Materia organikoa → KONPOSTAJEA
- Edukiontzi guneen osaketak
- Errefusaren edukiontzia irekita

# SORTZAILE BEREZIAK

Zurekin, alde ederra!

Ia 800 sortzaile berezi:

-**Atean bertan**: Organikoa, errefusa eta kartoi komertziala

-**Edukiontzietan**: Beira, ontzi arinak eta papera

Zurekin, alde ederra!

# SORTZAILE BEREZIAK

| astelehena lunes | asteartea martes | asteazkena miércoles | osteguna jueves | ostirala viernes | larunbata sábado |
|---|---|---|---|---|---|
| | 12:00 **kartoi komertziala** cartón comercial | | 12:00 **kartoi komertziala** cartón comercial | 12:00 **kartoi komertziala** cartón comercial | |
| 22:00 **organikoa** orgánico | | 22:00 **organikoa** orgánico | 22:00 **errefuxa** rechazo | 22:00 **organikoa** orgánico | 22:00 **organikoa** orgánico |

**Papera, ontzi arinak, beira, arropa eta pilak edukiontzi bidez**
**Hondakin arriskutsuak garbigunera edo Emeterio Arreseko etxolara**
Papel, envases ligeros, vidrio, ropa y pilas mediante contenedores.
Los residuos peligrosos se deben llevar al Garbigune o a la caseta de Emeterio Arrese.

Zurekin, alde ederra! — TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA — TOLOSAKO UDALA — TolosaBIZIA

tolosa@tolosaldea.org

# Eskerrik asko
# zuen arretagatik!

# OÑATIKO
# ATEZ ATEKO
# BILKETA SISTEMA

# EZAUGARRI NAGUSIAK

ETXEBIZITZA, KOMERTZIO EDO INDUSTRIA BAKOITZAK SORTZEN DITUEN HONDAKINAK BEREIZITA JASOTZEA

BILKETA INDIBIDUALIZATUA

BILKETA SISTEMA ERAGINKOR BAT



Herritarren 100%ak parte hartu behar du, irtenbide jasangarri bat eskuratzeko

# NOLA FUNTZIONATZEN DU?

• HERRIGUNEKO HERRITARRAK

108 bilketa puntu







# NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- <u>HERRIGUNEKO HERRITARRAK</u>




EGUTEGIA






ORDUTEGIA

# NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- <u>HERRIGUNEKO HERRITARRAK</u>

Egoera berezietan zer??

LARRIALDI GUNEAK








# NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- LANDAGUNEKO HERRITARRAK

13 MINIGUNE







4 EKARPEN GUNE

# NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- SORTZAILE BEREZIAK

  - BILKETA KOMERTZIALA ATEZ ATE
  - INDUSTRIA BILKETA ATEZ ATE





| Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala | Larunbata |
|---|---|---|---|---|---|
| PAPERA /KARTOIA | ORGANIKOA | ONTZI ARINAK | ORGANIKOA | ERREFUSA | ORGANIKOA |
| KARTOI KOMERTZIAL ZERBITZUA ASTEAN HIRUTAN | | | | | |





gaurko hazia
biharko bizia

INGURUMENA

# EZARPEN PROZESUA

- INFORMAZIO ETA PARTE HARTZE BILERAK

oñati ZERO ZABOR

+

Oñatiko Udala




HONDAKINEN PROBLEMATIKA

ZERGATIK ATEZ ATEKOA??

# EZARPEN PROZESUA

• INFORMAZIO ETA PARTE HARTZE BILERAK

2 – NOLA FUNTZIONANTZEN DU ATEZ ATEKOAK?
ZER DA HERRITARRAK AUKERATUKO DUENA?



- ESEKITOKIEN KOKALEKUA
- ONTZI ARINAK ETA PAPERA NOLA ATERAKO DUTEN
- BILKETA ORDUTEGIA



HERRIA AUZOETAN BANATU ETA **8 EGUNETAK 16 BILERA** EGITEN DIRA **HERRIKO AUZO DESBERDINETAN**

**BI INFORMAZIO BULEGO IREKITZEN DIRA**

# • BILERETAKO MATERIALA



ATARIKO ARDURADUNAREN ZEREGINA / ROL DEL/LA RESPONSABLE DEL PORTAL

- Informazio bilera hauetara etorri / Asistir a estas reuniones informativas
- Informazioa eta materiala jaso / Recoger toda la información y el material
- 15 egunetako epean (urtarrilak 28) atari-kideei jasotako informazioa eta planteatzen diren alternatibak azaldu / Trasladar a los/las vecinos/as la información y alternativas planteadas en un plazo de 15 días (28 de enero)
- Betetako galdetegia informazio bulegoan edo udal bulegoetan entregatu / Entregar el cuestionario cumplimentado en las oficinas de información o oficinas municipales
- Otsailak 4an burutuko den bigarren bilerara azaldu / Asistir a la segunda reunión que se celebrará el 4 de febrero

INFORMAZIO GEHIAGORAKO / PARA MÁS INFORMACIÓN

Kale Zaharreko informazio bulegoa: 943250145

San Lorentzoko informazio bulegoa: 943250682

OSTIRALETAN INFORMAZIO BILERAK UDALETXEAN (aurrez txanda hartuta)

LOS VIERNES REUNIONES INFORMATIVAS EN EL AYUNTAMIENTO (con cita previa)

Txanda hartzeko/ Para solicitar cita: 943780411

Ordutegiak / Horarios: 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00

ATEZ ATEKAKO PROZESU PARTE HARTZAILEA / PROCESO PARTICIPATIVO PUERTA A PUERTA

Atariko arduradunaren rola




Auzoko fitxa orokorra



EKARPEN ORRIA / HOJA DE PROPUESTAS

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN

| | |
|---|---|
| AUZOA / BARRIO: | ETXEBIZITZA KOPURUA: Nº VIVIENDAS |
| ATARIA / PORTAL: KONTAKTUA / CONTACTO: | BILERARA BERTARATUTAKO ETXEBIZITZAK / Nº VIVIENDAS ASISTENTES A LA REUNION: |

ESEKITOKI KOKAPENA / SITUACIÓN DE LA PERCHA

| | |
|---|---|
| KOKAPENA / SITUACIÓN: Kokapenarekin ados? / Conforme con la situación? BAI/SI EZ/NO | EZEZKOA BADA ZERGATIA AZALDU / EN CASO DE NO ESTAR CONFORME ESPECIFIQUE EL PORQUÉ: |

| ONTZIEN BILKETA NOLA NAHIKO ZENUKE / COMO DESEARÍA LA RECOGIDA DE ENVASES: | |
|---|---|
| KUBOETAN / CUBOS | |
| ERABILERA BAKARREKO BASURA POLTSA HORIAK / BOLSAS BASURA AMARILLAS UN SOLO USO | |

| PAPERAN BILKETA NOLA NAHIKO ZENUKE / COMO DESEARÍA LA RECOGIDA DE PAPEL: | |
|---|---|
| ATARIAN KOMUNITATE OSORAKO EDUKIONTZIAN / EN EL PORTAL EN CONTENEDOR PARA TODA LA COMUNIDAD | |
| KUBOETAN / CUBOS | |

AUZOKONPOSTA / COMPOSTAJE COMUNITARIO

| | |
|---|---|
| Zenbat bizilagun daude auzo-konposta egiteko prest? ¿Cuántos vecinos/as están dispuestos a compostar comunitariamente? | |

OHARRA: interesa duten bizilagunei informazio bulegoetan edo/eta udalean izena ematea eskatu

ATEZ ATEKAKO PROZESU PARTE HARTZAILEA / PROCESO PARTICIPATIVO PUERTA A PUERTA

Ekarpen orria




Behebarru bakoitzaren fitxa

# EZARPEN PROZESUA

- INFORMAZIO ETA PARTE HARTZE BILERAK

3 – PARTE HARTZE PROZESUKO **EMAITZAK** EMAN
HURRENGO PAUSUAK ZEINTZUK DIRA?

- MATERIAL BANAKETA NOIZ
- ZER BANATUKO DA








# NOLA ETA NON TRATATZEN DIRA HONDAKINAK



# BILKETA EMAITZAK




**%80,93ko BILKETA MAILA**

# BILKETA EMAITZAK

**Hondakinak Debagoiena 2011**




**Hondakinak Debagoiena 2014**




HONDAKINEKIN selek-tiboak gara.

**%59,77ko BILKETA MAILA DEBAGOIENAN**

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

# BILKETA EMAITZAK



# KOSTE EKONOMIKOA

**INBERTSIOAK**

- ESEKITOKIAK
- ONTZIAK (atez aterako eta 5 edukiontzi bidezko bilketendako)
- KAMIOIAK (atez aterako eta 5 edukiontzi bidezko bilketendako)
- EKARPEN GUNEAK
- INFORMATZAILEAK
- SOFTWARE INFORMATIKOA
- …

# KOSTE EKONOMIKOA

**SARRERAK**

- ECOEMBES ONTZIAK (Bilketa hirukoiztu)
- ECOEMBES PAPERA
- PAPER, TXATARRA SALMENTA
- …

**BILKETA SELEKTIBO MAILA HANDITZEAN**

**DIRU SARRERAK HANDITZEN DIRA**

# KOSTE EKONOMIKOAA

## Finantzaketa

### Atez-Ate inbertsioen finantza plana 2013 2018

**INGURUMENA**

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Inbertsioa | 1.080.000,00 € | 1.150.000,00 € | 501.000,00 € | 350.000,00 € | 500.000,00 € | 700.000,00 € |
| Finantzaketa | | | | | | |
| Gerakinak | 0,00 € | 662.000,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| Udal ekarpenak | 280.000,00 € | 738.000,00 € | 626.000,00 € | 625.000,00 € | 650.000,00 € | 700.000,00 € |
| Epeleko inberts. | 800.000,00 € | -250.000,00 € | -125.000,00 € | -275.000,00 € | -150.000,00 € | 0,00 € |
| Mailegua Bankuei | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € | 0,00 € |
| Inbertsioa | 1.080.000,00 € | 1.150.000,00 € | 501.000,00 € | 350.000,00 € | 500.000,00 € | 700.000,00 € |

| | Arr | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Ingurumena | 2013 | 2014 | 2015 | Igoera | |
| ANTZUOLA | 155.666,14 € | 177.183,72 € | 160.572,37 € | -16.611,35 € | -%9,38 |
| ARETXABALETA | 585.434,28 € | 635.546,70 € | 622.264,82 € | -13.281,88 € | -%2,09 |
| ARRASATE | 1.929.366,88 € | 2.106.783,97 € | 1.980.809,58 € | -125.974,39 € | -%5,98 |
| BERGARA | 1.415.226,89 € | 1.568.889,96 € | 1.480.444,59 € | -88.445,37 € | -%5,64 |
| ELGETA | 126.776,83 € | 138.599,82 € | 130.785,75 € | -7.814,07 € | -%5,64 |
| ESKORIATZA | 327.381,90 € | 364.076,43 € | 337.665,02 € | -26.411,41 € | -%7,25 |
| GATZAGA | 18.714,64 € | 14.159,39 € | 13.353,92 € | -805,47 € | -%5,69 |
| OÑATI | 908.171,80 € | 1.012.615,57 € | 956.050,07 € | -56.565,50 € | -%5,59 |
| GUZTIRA | **5.466.739,36 €** | **6.017.855,56 €** | **5.681.946,12 €** | **-335.909,44 €** | **-%5,58** |

**120 €/TASA**

**KOSTE GUZTIAK ESTALTZEN DIRA**

HONDAKINEKIN selek- tiboak gara.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

gaurko hazia
biharko bizia

INGURUMENA

# EUROPAKO HIERARKIAZ BAT




ECOCENTER




Auzokonposta
Autokonposta



Kontsumo arduratsua



HONDAKINEKIN selek-tiboak gara.

**<u>Sistema selektibo, bideragarri eta efiziente</u>** baten bidez lortuko da **<u>bilketa selektibo maila altua</u>**. Norabide horretan ari gara lanean.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

# DENON ARTEAN %60ra!
# HOBETZERA GOAZ!



DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

DEBAKO UDALA

# GALDERA ERANTZUNAK



# Zergatik erabaki zen txipa jartzea Tolosako ereduan?

Erantzuna (Tolosako ordezkariek):

Txipa jartzearekin etxebizitza bakoitzak edukiontzi bat dauka erabiltzeko, eta hondakinen dispertsio posiblea ekiditen da (nahi duenak nahi duen tokira botatzea).

Horrez gain, hondakinak ateratzeko egunak murrizten dira, eta errefusa astean behin bakarrik atera daitekeenez herritarrek mugatu egin behar dute sortzen duten errefusaren kantitatea. Sistema berria martxan jarri denetik errefusaren kantitatea asko jaitsi da.

DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

# Ontzi arinak, paperak eta kartoiak txipa dute Tolosako sisteman?

Erantzuna (Tolosako ordezkariek):

Ez. Ontzi arinak, papera eta kartoia eta beira orain arte bezala edukiontzi irekietan jasotzen dira.

## *Mahai inguruan aurkeztu diren sistemen artean **zein da birziklatze tasa altuena duena?***

Erantzuna (Oñatiko ordezkariek):

Birziklatze eta sailkatze tasa altuenak ematen dituen sistema orain arte Atez Atekoa izan da.

Sistema honen baitan funtzionatzen duten herriek %80ko edo gehiagoko sailkatze tasa dute kasu gehienetan.




## *Zer egingo litzake sistema bakoitzarekin* ***Udan?*** *Debak udan egoera berezia du, udatiar asko, turismoa…*

Erantzuna (Tolosako ordezkariak):

Herri guztiek dute momentu batean edo bestean ohikoa baina hondakin gehiago sortzen dute. Tolosaren kasuan, esaterako, inauteriak data garrantzitsuak dira, jende asko ibiltzen da eta hondakin askoz gehiago sortzen da.

Gaur egun ere seguruenik Deban udako bilketa sistema eta negukoa ez dira berdinak izango, hau da, udako sistema errefortzatua egongo da, baliabide gehiago jarriko dira. Hemendik aurrera ere hala egin beharko litzake.

Horrez gain, hondartzako bilketa Eusko Jaurlaritzaren ardura da eta bera arduratzen da hondartzaren garbiketaz.

DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

DEBAKO UDALA

# *Txiparekin irekitzen diren* ***edukiontziek irekitzeko egun muga*** *dute?*

Erantzuna (Tolosako ordezkariak):

Tolosaren kasuan bai, familia edo etxebizitza bakoitzak astean 3tan ireki dezake organikoa, errefusa berriz astean behin.

Modu honetan bermatzen da sortzen den hondakinaren kalitatea oso ona izatea, ondo bereiztua dago eta jarraipena zuzenagoa da.

Hala ere, nahiz eta astean hiru egunetan bota herritarrek, organikoa egunero jasotzen dute kamioiek.

# ***Kalearen zikintasuna*** *nola lantzen da zuen herrietan?*

Erantzuna (Tolosako ordezkariak):

Kaleko zikinkeria ez dago sistema batekin edo bestearekin lotuta. Kaleko zikinkeria norberaren eta herritarren jarrera eta jokabidearekin lotuta dago. Tolosako kasuan, norberak sortzen duen hondakin horren gainean kontzientzia sortzeko kanpaina eta bitartekoak lantzen gabiltza.

Horrez gain, kaleko edukiontziak ere gaikako bilketara moldatzeko lanetan dabiltza.

# Gutxiago sortzeko neurririk hartu al da?

Erantzuna (Oñatiko ordezkariek):

Tupperren kanpainak, plastikozko poltsenak, etab. bultzatu dira. Baina denda edo produktuetan gutxiago sortzeko edo erosten den momentuan gutxiagorekin erosteko zailtasunak daude, ekoizleen eskuetan baitago hori.

DENON ARTEAN %60ra!
HOBETZERA GOAZ!

Debako Udala

# *Konpostajea nola egiten da beste herrietan?*

Erantzuna (Tolosako ordezkariak):

Tolosaldeako erronka nagusia sortzen den organikoa bertan kudeatzea da. Hori dela eta, gaur egun mankomunitateko hainbat herrik ez dute organikoaren bilketarik egiten, herrian bertan gelditzen da. Helburua da, auzokonposta eta autokonpostaren bitartez Tolosaldeako beste herrietan ere halako neurriak hartzea.

# AMAIERA

Gaurko mahai ingurua amaitutzat eman da modu honetan.

Hurrengo saioa datorren asteartean, **otsailaren 24an izango da, arratsaldeko 19:00etan**. Bertan, bilketa sistema ezberdinen inguruko ezaugarriak landuko ditugu guztion artean.

*Milesker guztioi etortzeagatik!*

# DENON ARTEAN %60ra!
# HOBETZERA GOAZ!

